

# BERBAROTARRA 12.zk. 1997ko abendua

## 97. urteko plana

Urtero-urtero, zapatu goiz batean batzen gara azpitaldeetako kideok, bukatutako urteari begiradaxoa eman eta datorrenean egingo duguna erabakitzeke. Aurten urtarrilean egin dugu batzar hori eta 25 bat lagun bildu gara bertan. Batzar horretako gogoetak kontuan izanda 22an eginiko Zuzendaritza Batzordean urteko lehentasun hauek erabaki ditugu:

### 1.-Egiten diren ekintzei errentagarritasun handiagoa ateratzea.

Aurten ahalegin handia egingo dugu gure ekintza guztiak orain arte baino oihartzun handiagoa izan dezaten.

### 2.-Bazkideen parte hartzea bultzatzea.

Bazkideen parte hartzea bultzatu nahi dugu askoren artean gehiago eta hobeto egingo dugulako euskararen aldeko lana. Horretarako, parte hartu nahi duenak nola eta noiz

parte hartu behar duen azalduko dizuegu ahalik eta argien.

3.-Txokoaren erabilera areagotzea. Txokoa martxan jartzea izan da 96 urteko Berbaroren lanik garrantzitsuenetakoa. Martxan dago honezkero eta erabilera bultzatu nahi dugu. Momentuz eta funtzionamendua hobetzeko asmoarekin, bazkideen artean 4 aukeratuko dira, hamabostero txokoaren kontuak aztertu eta konpon ditzaten.

4.-Udalean euskara zerbitzuaren sorrera bultzatzea. Udalean euskara zerbitzua sortzearen garrantzia azaldu nahi dugu.

Datozen hileotako ekintzak hauek izango dira:

### Urtarrila

- \*31n Bertso afaria
- \*9an "Ortozik"en kontzertua tabernan
- \*Martin Egiaren erakusketa tabernan
- \*Isaias Isusiren erakusketa tabernan
- \*28an Euskararen Unibertsoaren aurkezpena
- \*Merkealdien kanpainaren neurketa


### Otsaila

- \*D ereduaren aldeko kanpaina
- \*13an "DUT"en kontzertua tabernan
- \*Udalaren "Elkarteek euskara erabiltzeko gida"ren argitalpena

### Martxoan

- \*Sagardotegira irteera
- \*9. Prentsetan Gabizen argitalpena
- \*Giñola tabernan

# BAGABILTZA BAGABILTZA




**Berberok diruzaina kontratatu du.** Duela hilabete jakinarazi genizuen Amaia Zarrabeitia, ordura arteko diruzaina, ordezkatzeko elementu on bat behar genuela. Berbaron 8 curriculum jaso dira eta horietatik aproposena Jon Ortuzar Mendizabalena iruditut zaigu. Jon ekonomilaria da eta Berbaroko aspaldiko bazkidea. Sasoi batean tabernan ere ibilitakoa da.

**Medikuarengana euskaraz.** Aurreko boletinean, izenburuetako bat *medikura euskaraz* izan zen. Zuetako askok jakinarazi diguzue, ez da forma jatorra eta guk idatzitakoaren ordezkarengana euskaraz beharko luke. Beraz, eskerrik asko zuzenketa egiteagatik eta barkatu hanka sartzea.

**Arabako eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketak** aurrean ere berbarotar bi izan ditu finalean: Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Azkenak, gainera, txapela jantzi du Arriaga antzokian. Ondoei ohituta gaituzte bi hauek.


**Berberoko agenda salgai daukazu** gure bulegoan. Bilboko Artez enpresak euskarazko agenda eskaini dio Berbarori. Bazkideei eskaintza egiteko denborarik ez eta kopuru txikia eskatu zaie Artzekoei. Hala ere, oraindik 10 bat daude salgai. Agendaren prezioa 1.700 pta. da (kostua).



## Mauleko Ikastolakoek laguntza eske

Mauleko ikastola orain dela 25 urte egin zen. Gaur egun, oso zaharkitua dago eraikina eta bertako politikoei hainbat aldiz lokal berriagoen eskaria egin arren, erantzunik ez dutenez, bertako gurasoek eraikin berri bat egitea erabaki dute Suhuta herrian. Horretarako 45 bat milioi pta behar dituzte eta behartuta aurkitzen dira laguntza eskatzera. Gugana jo dute 4.500 ptako bonoekin eta guk zuek jakitun jartzea pentsatu dugu. Informazioa nahi duenak, deitu dezala Eperra Ikastolara, 05.59.28.33.78 telefonora, edota Berbarora bertara (620.19.18) zer egin behar duzun azalduko dizuegu eta.

## Euskararen Unibertsoa



Zer da euskararen unibertsoa? Joan den urtarilaren 28an, Pinondo Etxeko goiko solairua bete-bete egin zen Joxe Jabier Iñigo EKBko arduradunaren azalpenak entzuteko. Berbarok egindako deialdiari erantzunez, Durangaldeko hainbat euskaltzale eta euskararen gizarte erakundeetako partaide batu zen Pinondon, "euskararen unibertsoa" zer den jakin asmoz. Euskararen normalizazioak kezkatuta, euskararen gizarte erakundeetako hainbat kidek jarri zuten martxan iaz "euskararen unibertsoa". Hiru helburu nagusi zehaztu ziren:

- Lehendabizi euskararen normalizazioari buruzko ideiak lantzea eta elkartrukatzea.
- Horrekin batera, euskararen normalkuntzarako Plangintza osatzen hastea.
- Euskalgintzan dabilzan erakunde eta pertsonen artean elkarlana bultzatuz, euskararen garapenerako tresna egokiak jartzten hastea.

Azkenengo boletinean, txokoko lehenengo 30 bazkideen argazkiak ikusteko aukera izan zenuen. Ona hemen hurrengo 30ak. Hala ere, bazkideak guztira 65 dira dagoeneko, animatu eta egin zaitez zeu ere txokoko bazkide.



# Olgetaneko bazkideek karneta izango dute

Olgetaneko bazkideak karneta izango dute. %20ko deskontuak asteburuko ekintzatan eta %10ekoa kanpamentuetan. Berbaroko bazkide diren gurasoen seme-alabak ez dute izango urteko kuota ordaindu beharrik.

Olgetan aisialdi taldekoentzat erabiliko dugu boletinaren atal hau oraingoan.


OHOko 5. 6. eta DBHko 1. mailako gaztetxoekin lan egiten urte bete eman eta gero, gogoetarako astia izan dugu eta etorkizunera begirako erabaki batzuk hartu ditugu.

Garrantzitsuena, Olgetan aisialdi taldeak antolatutako ekintzetan parte hartu duten umee guztiei bazkide izateko aukera emango diegu.

Edozelan ere, Olgetan, Berbaro Elkarteko aisialdi taldea da, baina bere bazkideak dituen elkarte modura funtzionatuko du. Nortzuk osatuko dute? OHOko 5. 6. mailako iksleak eta DBHko 1. mailako gaztetxo euskaldunak, 2000 pta ordaindu urtean eta argazki bi eta bazkide txartela

datu guztiekin beteta ekarri. Baina jakina, Berbaroko bazkide diren gurasoen seme-alabak dohainik izango dute bazkide izateko aukera.

Olgetaneko bazkideak %20ko deskontua izango dute astebu-



rietako ekintzetan, %10ekoa kanpamentuetan eta Berbaroren boletina jasoko dute horretarako, karneta izango dute argazki eta guzti.

Azalpen gehiago behar badituzu, deitu Berbarora eta aisialdiko ekintzen arduraduna den Aitorrekin hitz egin.

## OLGETAN

Urtarrila  
12an Elurtzara irteera  
26an Izotzetara patinatzer  
Otsaila  
2an Txitxiburduntzi eta eskalada  
15ean eta 22an maskara tailerra  
Martxoa  
2an Urdaibaira irteera  
14, 15, 16 Zugaztiara asteburupasan

## GUEZANBA!

Urtarrila  
Tabernetako euskara kanpaina  
Otsailan  
Argazki tailerra  
Futbolaren porra Berbaro tabernan  
Apirila  
Aste Santuan gazte topaketa  
Ietik 4ra Urrietara kanpamendua

## LARROSA

Katazka taberna zabalduko dutela eta, propaganda banatzen ibili dira urtarrilean. Bazkide batek ekarri digun orritxoan ikusi izan dugun modura euskarari lehenta-suna eman diote.



## ARANTZA

### CURSOS INTENSIVOS

Informatika Durangokoek dira oraingoan *arantza* honetan agertzea merezi dutenak. Ikastaro batzuen berri emateko buzoietan paperak banatu dituzte eta gaztelera hutsean.